



Udal1-batzarre
O-17.06.18

**Begoña Antxustegi Bengoetxea, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ormaiztegi-
Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile honek, zera**

ZIURTATZEN DUT:

**Udal batzarreak 2017ko maiatzaren 22an eginiko Batzarre Ohikoan, besteak beste,
onartu zuen jarraiko letraz letrazko erabakia:**

BEDERATZIGARREN PUNTUA:

Abuztuaren 7tik 18ra bitarteko egunak baliogabetzat hartzea

Jon Enriquek adierazi du, ihaz egin zen bezala, aurten ere Udaletxea abuztuaren bigarren eta hirugarren astean itxita edukitzea proposatzen dela, batetik, eguneroko jarduna gelditu egiten delako garai horretan, eta, bestetik, udal langileak gutxi izanik, oporrak hartu ahal izateko, lana bere gain hartu dezakeenik ez litzatekeelako bestela izango.

Udal handiagoek ere horrela egiten dutela esan du eta Azpeitiako adibidea jarri du, non Udala hilabete osoan itxita egoten den.

Udala itxiz gero, irekita dauden prozeduretan epeak aurrera ez egiteko, egunok baliogabe deklaratzeko proposamena egin du.

Ez da galderarik edo oharrik izan udalkideen aldetik. Bozkatu egin da eta ahobatez onartu.

Eta horrela agerian gera dadin eta dagokion ondorio egokietarako, ziurtagiri hau sinatzen dut, ROFeko 206 art.an (azaroaren 28ko 2568/1986 E.D.) xedatzen denaren arabera, hau da, akta onartzerakoan finkatzen denaren kalterik gabe, Presidentearen oniritziz, Ormaiztegin, bi mila eta hamazazpiko uztailaren hemezortzian.



...//...
O-17/06-14

